

IRAKASLEEN FITXAK (inprimatzekoak)

5. saioa: bateko-zerrenda, erdiak, bostenak, hamarrenak...

Aitzinetik prestatu beharreko materiala



- Bateko-zerrendak eta batekoaren zatikiak (plastifikaturik berrerabiltzeko gisan), 5. eranskinean ageri direnak (bi zerrenda multzo orrialdean).
- Saioa aitzin prestatu laukizuzen bat edo bi lurrian edo kartoizko orri handietan markatzeko materiala: zinta itsasgarria (aise atera daitekeena), edo korapilo batez hetsi kordelak, non lau aldean luzerak zinta itsasgarriz markaturik diren (edo marrazki handiak).
- Eskuaira, erregela eta angelu neurgailua (arbelekoak, adibidez).

Sarrera: 1., 2., 3. eta 4. saioen laburbiltzea eta helburuen jakinaraztea – Iraupena: 2 min


Helburuak:

- Zatikien manipulatzeta, haien arteko loturen ematea eta zatiki hamartarren lehenestea.
- Zentzuaren ulertzea eta zenbaki hamartarren idaztea.
- Zenbakien konparatzea.

1. zatia: zatikien manipulatzeta – Iraupena: 10 min

Marratzu irudiak (lurrean edo kartoi zati handietan)	Irakaslea eraikitzen laguntzeko:
	

Material berriaren aurkezpena: bateko-zerrenda handi bat, gero bateko erdiko zerrenda bat, beste bat bateko bostenekoa eta, azkenik, beste bat bateko hamarrenekoa.



Materialaren banaketa: 5. eranskina

Lehenik:

“Zer ikusten duzue? Zer lotura egin daiteke bazter gorriko zerrenden eta bateko-zerrendaren artean? Zerrenda horretan, zer erlazio ezar zati baten eta batekoaren artean?” edo “zenbat balio du zati bakoitzak? Eta nola idazten duzue zati baten balioa zenbaki batez?” (*erdi*, *bosten* eta *hamarren* hitzak, zatiki gisako idazkerak)

Gero:


- “Zenbat erdi dira bateko batean?”
- Zenbat bosten ditu bateko batek?”
- Zenbat bosten dira bi erdi?”
- Zenbat hamarren balio dute bost bostenek?”

“Nola idazten dituzue berdintza horiek?”

Azkenik: « Zerrendak konpara itzazu. Zer ikusten duzue? »

2. zatia: gogoetzeko-egoera, manipulazioak eta zatikiak – Iraupena: 30 min

Ikasleek atzeman behar dituzten neurriak



Talde bakoitzak luzera osoaren kalkulua idatziko du eta egingen.

Lehen laukiaren kasuan:

$$\begin{aligned} 2 + \frac{2}{10} + 1 + \frac{4}{5} + 5 + \frac{1}{2} + 7 + \frac{2}{5} &= 2 + 1 + 5 + 7 + \frac{2}{10} + \frac{4}{5} + \frac{2}{5} + \frac{1}{2} \\ &= 15 + \frac{2}{10} + \frac{6}{5} + \frac{1}{2} \\ &= 16 + \frac{2}{10} + \frac{1}{5} + \frac{1}{2} \\ &= 16 + \frac{9}{10} \end{aligned}$$

Bigarren laukiaren kasuan:

$$\begin{aligned} 3 + \frac{1}{5} + 4 + \frac{6}{10} + 3 + \frac{1}{2} + 5 + \frac{2}{5} &= 15 + \frac{17}{10} \\ &= 15 + \frac{10}{10} + \frac{7}{10} \\ &= 15 + 1 + \frac{7}{10} \\ &= 16 + \frac{7}{10} \end{aligned}$$

3. zatia: saioaren bilana – Iraupena: 8 min

Horra saioan landu dena:

Batekoaren zatikiak irudikatzen zituzten paperezko zerrendak (hemen itsasteko direnak) erabiltzean, frogatu da:

- Hamarren bat hau dela: bateko bat 10 zati berdinetan zatituz geroz, zati horietarik bat.

$$\text{Erran nahi baita : } 10 \times \frac{1}{10} = 1$$

- 5 hamarren behar direla erdi baten osatzeko, erran nahi baita: $\frac{5}{10} = \frac{1}{2}$

- 2 hamarren behar direla bosten baten osatzeko: $\frac{2}{10} = \frac{1}{5}$

Kalkuluen egiteko edo zenbakien konparatzeko, aiseago da hamarrenak bakarrik erabiltzea, hamarrenak, erdiak eta bostenak nahasi ordez.

ERANSKINA

(inprimatzekoa)

5. eranskina – 5. saioa: bateko-zerrenda, erdiak, bostenak, hamarrenak

Batekoa

Erdiak

Bostenak

Hamarrenak